



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
MAIATZA-EKAINA 2025



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia
CULTURA, Zizur Mayor

Jarraiguzu ZizurArten:
www.zizurmajorcultura.es/eu



EGUTEGIA



DANTZA



ANTZERKIA



ZINEMA



HAUR
ZINEMA



HAUR
DANTZA



MUSIKA

MAIATZA

				1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

EKAINA

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

EGUNA

- 02 **DANTZA** "Acabarnos"
AIMAR ODRIOTZOLA & DAVID EUSSE
- 03 **ANTZERKIA** "Arizona"
TXALO PRODUKIZIOAK
- 07 **ZINE-FORUMA** "Te estoy amando locamente"
ALEJANDRO MARÍN
- 09 **ANTZERKIA** "La montaña"
MIKELE URROZ ZABALZA
- 11 **HAUR ZINEMA** "Vaiana 2"
DAVID G. DERRICK JR., JASON HAND,
DANA LEDOUX MILLER
- 16 **ANTZERKIA** "Ninini" ANTON TELLERIA
- 18 **HAUR DANTZA** "Bipedestrucción"
DISIDEN.CÍA
- 24 **MUSIKA** ZIZUR NAGUSIKO
MUSIKA BANDA
- 25 **ANTZERKIA** "Rebelión en escena"
ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA
- 30 **ANTZERKIA** "El paraíso de los rotos"
PARENA TEATRO

EGUNA

- 07 **ANTZERKIA** "El Genoma del Pavo"
RAFA MAZA
- 12 **ZINE-FORUMA** BILBOKO LGTBIQ+
NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE
ESZENIKOEN JAIALDIA
- 13 **ANTZERKIA** "Madness"
YLLANA + PRIMITAL BROTHERS
- 14 **MUSIKA** "Rderiot - Frecuencias"
BINARY SOURCE & L'ESPOIR
UNDERGROUND

**AHAL DUZUN GUZTIAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ**



**ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN**

Antolatzaileak:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



Euzko Foruak
Euzko Foruak

Diru-laguntzaileak:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA



BILATU PROMOZIOAK!



ZizurArte

12€

**MAIATZEKO
ZUBIA
BONUA**

"Acabarnos"
AIMAR ODRIÓZOLA
& DAVID EUSSE
2025/05/02



"Arizona"
TXALO
PRODUKZIOAK
2025/05/03

9€

**NAFAR
ANTZEKIA
BONUA**

"La montaña"
MIKELE URROZ
ZABALZA
2025/05/09



"El paraíso de los
rotos"
PARENA TEATRO
2025/05/30



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE

TXARTELAK (12 eta 30 urte

bitartekoentzat): 4 euroko edo

4 eurotik gorako sarreretan

%50eko murrizketa. Ez da

aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

**Apirilaren 24ko (osteguna)
09:00etatik aurrera.**

1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera

09:00 - 21:00

- Larunbatetan

10:00 - 14:00

17:00 - 21:00

- Igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00

- Ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago.

2. INTERNET

www.zizurmayorcultura.es/eu

Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.

Gogoan izan, kosturik gabe



OINARRIZKO ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.

- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Ostirala

02



DANTZA


Acabarnos

AIMAR ODRIOZOLA & DAVID EUSSE

20:00

6€

50 min



Gorputzaren eta teknologiaren arteko lotura ikergai duen dantza garaikideko proposamena. Agertokian, bi pertsonaia, biak ere nekatuak, ezerk ere ez ditu harritzen, eta ez dira bizirik sentitzeko gauza, ez bada beren burua muga irudikaezinez haratago eramanez. Beren buruari galdetzen diote: Nola iraun erdi erreala erdi birtuala den mundu honetan, gorputzak amaiera saihestezina zain duenean? Nola lortu jendea gutaz oroitzea? Sare sozialek egunero elikatu beharra dagoen

sasi-errealitatean barneratzen gaituzte, ahanzturan ez erortzeko, geure burua agertzeko; eta besteen onarpena etengabe lortu behar izate horrek azkenean ondorioak ditu gure gorputzean, eta gure gorputza eduki bihurtzen da, kontsumo-objektu, alegia. Jendearen onarpena erdiesteko ordaintzen dugun prezioa da, bai eta gizarteko kide sentitzeko ordaintzen duguna ere, emaitza bakardadean bizitzea izanik ere.

Topaketa talde artistikoarekin, saioaren ondotik.

Larunbata

03



ANTZERKIA

Arizona

TXALO PRODUKZIOAK

20:00
10€
80 min



**ES
TREI
NALDIA**
NAFARROAN
GAZTELANIAZ

Margareth eta George Arizona mugara iritsi dira. Emakumea musikal bat egiteko irrikan dago. Gizonak muga defenditzeko eginkizuna du... baina norengandik?

Margie, ikusminez beti, eta George burugogorra parodiarik zoroenen eta tragediarik gordinenaren arteko mugaldeen mugitzen dira.

Arizona ez dago urrun. Arizona hemen dago, Pausuan, Melillan, gizaki batek bizimolde hobea lor ez dezan eraikitzen den horma bakoitzean.

Testuak gogoeta egiten du mugez, migrazioaz, gizakien ergelkeriaz eta manipulazioaren mugez; horrez gain, bizitzaren basamortuan galdurik dauden bi gizakiren erretratu tragikomikoa da.

Asteazkena

07



ZINE-FORUMA

Te estoy amando locamente

ALEJANDRO MARÍN

19:00
2€
107 min



Antolatzaileak:



COMISIÓN DE IGUALDAD
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA



KULTURA, Zine Nagusia
KULTURA, Zine Mayor

Sevilla, 1977. Homosexualitatea delitua den garaian, Reme ama tradizionala da, semearenganako maitasunak diharduena. Semeak artista izan nahi du eta Andaluziako LGTBI mugimenduan sartuko da, paradoxikoa bada ere Elizaren baitan sortua.

Ondotik, solasaldia María Castejón Leorza historialari eta zine-kritikariarekin.

MAIATZA

Ostirala

09



ANTZERKIA

La montaña

MIKELE URROZ ZABALZA

20:00

6€

70 min



Mendi guztiak talka batetik sortzen dira, elkarrengana hurbiltzen diren indar tektonikoen arteko talka geldo eta bortitz batetik; indar horiek aurrean topatzen duten guztia errausten dute, harik eta gailur bat eratzen duten arte. Bi indarren arteko topaketa katartiko bat da. Maitasun baten antzekoa den zerbait. Horrelakoa izan zen berea, kontatzen du

Mikele Urrozek bakarrikzeta honetan. Dioenez, horrela sortu zen bere mendia. Mendikate bat zeharkatu, ustekabeko ekaitzei aurre egin eta beste garai batzuetako sekretuen berri eman zioten mendizale hilak topatu zituen. Orduantxe bakarrik hitz egin zion bere mendiak.

Topaketa talde artistikoarekin, saioaren ondotik.

Igandea

11



HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

Vaiana 2

DAVID G. DERRICK JR., JASON HAND, DANA LEDOUX MILLER

18:00

3€

99 min



Arbasoen ustekabeko deia jaso eta gero, Vaianak Ozeaniako itsas urrutietara bidaiatu behar du, ur galdu arriskutsuetan murgiltzeko eta beste abentura bat bizitzeko.

Ostirala

16



ANTZERKIA

Euskaraz

Ninini

ANTTON TELLERIA

20:00

6€

75 min



“Nekatutak” lanaren arrakastaren ondotik, Antton Telleria agertokietara itzuli da mikrofonoa eskuan gu irri eginarazteko bere estilo ironikoaren bidez eta bere-bereak diren txisteen bitartez. “Ninini” egolatriari eginiko oda bat da, Anttonek bere buruaz hitz eginen baitu etengabe, baina baita zintzotasun ariketa bat ere. Ikuskizun honetan Antton biluztu eginen da. Metaforikoki eta metaforikoki soilik, denon hobe beharrez. Hitz eginen digu bere buruarekin duen harremanaz, bere izenaz, bere bikotekideaz, komikoa izateaz eta bertsolari tradizional ez izateaz.

Igandea

18



HAUR DANTZA

Bipedestrucción

DISIDEN.CÍA


18:00

4€

60 min

Adin gomendatua:

5 urtetik aurrera



“Bipedestrucción” dantza garaikideko haur ikuskizuna da eta, atseginez nahiz jolasaren bidez, ezarriak dauden genero estereotipoak jartzen ditu zalantzan. Bi izaki dira protagonista, ez dakite nola ibili ongi beren bi oinen gainean gizartearen onarpena lortzeko eta jendeak ulertu ditzan. Une jakin batean, hanka-bitasuna hautsi eta hainbat identitatetaren artean dabilta, beren buruari inposatutako formak eta eskuratutako moldeak hautsiz.

Birendako paseo horretan, gizakiari zuzenean egindako erreferentziak aurkituko ditugu, baina baita animaliei eta munstroei egindakoak ere. Metafora sorta baten bidez, haurrekin era dibertigarrian eta hurbilean hitz egiteko aukera izanen dute. Umorezko zimikoak, jolas etengabea, bilaketa baten bila, hots, nor naiz? nor izan nahi dut?

Topaketa talde artistikoarekin, saioaren ondotik.

Larunbata

24



MUSIKA

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA

20:00

2€



Era askotako lanak kontzertuan. Pasodobleak, zine-musika, boleroak, musika klasikoa, bai eta instrumentu bakarlariak arituko diren hiru lan ere, fagotaren, saxofoiaren eta tronpetaren funtzionamendua ikasteko, bandako kideen azalpen laburren bidez.

Igandea

25



ANTZERKIA

Rebelión en escena

ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA

19:00

4€

75 min

Antzerki

tailerren trukea



Gau honetan, pertsona gutxietsiek hartu dute antzokia, adituak dira horretan. Ataka horretan, beren buruari galdetzen diote: "egiazki al gara gure patuaren jabe?, gizabanakoak gara edo talde izatera kondenatuak gaude?, gauza al gara geure gidoia idazteko?". Era askotako pertsonaia ikusezinez osaturiko talde hori hain galdera kezagarriei erantzuten saiatuko da.

Ostirala

30



ANTZERKIA

El paraíso de los rotos

PARENA TEATRO

20:00

6€

60 min



Tomás eta Juana elkarrekin egon dira beti, baita beren bizitzako une on gutxi-gutxi horietan ere. Orain, zoriontsuak sentitzen dira benetan, gizarteak bota dituen gauza hautsiak metatuak dauden leku batean bizi baitira. Baina gauzak, hautsita egonda ere, ederrak eta erabilgarriak izan daitezke... Pertsona hautsiak bezala. Tomás eta Juana bezala. Tomás eta Juana pertsonaiak erdi gizakiak eta erdi animaliak dira, eta mundu arraro honetan diraute bizirik, gauza bat ikasi dutelako, hots, hautsita egonda ere, akastunak izanda ere, gizartearendako baliorik ez

badute ere, zoriontsu edo holako zerbait izan daitezkeela, edota haiek zoriontsu izateaz ulertzen duten zerbait.

Egia esateko, erabat dira gaur egungo bi gizaki, behar baino askoz ere gauza gehiagoren jabeak, baina hautsiak daude emozionali barnera begira. Barne haustura horiek estaltzen tematu daitezke edo haiekin bizi eta ikasi horrela ere zoriontsu izan daitezkeela. Nagusi dira beren munduan, hau da, poetikotasunaren eta ametsaren artean mugitzen den munduan. Horra errege Tomás eta erregina Juana.



El Genoma del Pavo

RAFA MAZA

20:00

8€

90 min



Fabiolo gure seme pijo maitea Zizurra itzuliko zaigu, zeinen zoriontsua den kontatzera, bere genoma sekuentziatu duelako eta zoriontasunaren oinarri molekularrak aurkituko dituelako. Fabiolok jai helikoidal eta ebolutibo batera gonbidatuko gaitu eta, horren bidez, dotoretasunaren eta eskusibotasunaren jatorria ikasiko dugu Autolopijotus hartatik hona, eta ikasi ere zein diren bere-berea duen estilo nahastezin eta olinpiarraren oinarri nitrogenatuek oinarrian dituzten zibilizazio handiak. Pijeriak eta Genetikak (Epijenetika) bat egiten dute historian zehar garatzen den bidaia honetan. Piztu barnean daramazun GENTleman hori eta haz zaitez zoriontsu izaten Rafa Mazaren show berri honekin. Azido (desoxirribonukleiko), arras dibertigarria eta garratza.



Bilboko LGTBQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia

19:00

Sarrera librea, aurrez gonbidapena hartuta

77 min



Antolatzailea:



COMISIÓN DE IGUALDAD
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA

Zinegoak ekimena sentsibilizazio tresna bat da kulturaren bidez ekiteko. Kontu afektibo-sexualengatik eta identitateagatik inor ez dela baztertu behar nabarmendu nahi dute beren jardueren bidez. Zizurren honako film labur hauek emanen dira:

- "¿Dónde estás?", María Moreno Novoa (Euskal Herria)

- "Burning inside", Enock Carvalho, Matheus Farias (Brasil)

- "Azkena", Ana Inés Landeta, Lorea Lyons (Euskal Herria)

- "Arrecife", Ángel Morales Ballesta (Espainia)

- "Three", Amie Song (AEB)

- "Judoka", Ander Iriarte (Euskal Herria)

Topaketa publikoarekin, proiektzioaren ondotik.

Ostirala

13




ANTZERKIA

Madness

YLLANA + PRIMITAL BROTHERS

20:00
12€
90 min



The Primitals 2016an sortu zuten buru ulertezinek "Madness" ondu dute orain, sistemaren ertzetan dagoen bizitzari buruzko komedia musikala. Eliteen artean bizitzetik zubipean lo egitera. Pobreziatik jet set-era. Atzo ostrak jaten; gaur, ostrazismoa. Yllana eta Primal Brothers berriz ere elkarrekin etorri zaizkigu teknologia mitologia berria dela esateko, eguneroko bizitza eromena da, irria sakratua da, eta a capela kantua, berriz, gizateriarekiko aingura.

Larunbata

14



MUSIKA

Rderiot - Frecuencias

BINARY SOURCE & L'ESPOIR UNDERGROUND

21:00
6€
120 min



Ikus-entzunezko ikuskizun honetan, ingurune paregabean mamituko zaigu musika elektronikoa. Binary Source-k eta L'Espoir Underground-ek soinua eta ikusizko proiektzioak fusionatuz aurkezten dituzte beren zuzenekoak, generoez haratago doan esperientzia murgilgarria sortzeko eta, erritmoaren nahiz irudiaren bitartez, publikoarekin konektatzeko.